

# AIARALDEA *hemen*



2005/4 LEGE ORGANIKOA:  
**Indarrean sartu zen urtetik  
2.177 aldiz aplikatu da *mozal*  
legea Aiaraldean 2-3 or.**

SOS AIARALDEA:  
**Urrats berria eskualdearen  
defentsan, "emergentziatzko  
puntuak" aurkeztuta 16-17 or.**



## Euskara aktibatzeke, Lusiaondora



**"Beti ondoan  
izango duzunarengan  
konfiantza izatea da  
gidatzen uztea".**

**Gallo eta Mario**

*Surf egokituko munduko txapelduna eta haren laguntzailea*

**EUSKADIKO PENTSIOAK, BANAKAKO BGAEA  
BIZIARO AURREIKUSPEN-PLANAK**

**Bidelaguna izatearen balioa.**

Ezagutu inbertsioa zure neurria dibertsifikatuz zurekin eboluzionatzen duen plana. Gainera, abantaila fiskalak lortu ahal izango dituzu ekarpen bakoitzeko\*.

\* Espainian merkaturatzen diren aurreikuspen-plan guztiak abantaila fiskalak dituzte. EUSKADIKO PENTSIOAK BGAE-REN BAZKIDE SUSTATZAILEA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • ONDAREAREN GESTOREA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • AUDITOREA: PRICEWATERHOUSECOOPERS AUDITORES SL. Kontsultatu parte-hartzaileentzako funtsezko datuen agiria gure bulegoetan edo <https://www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aurrezkia/planak/aurreikuspen-planak> webgunean.



Bada beste modu bat



**Graf!k**

Telleria 2, LAUDIO 94 672 65 43  
[grafik.eus](http://grafik.eus)

## Garena gara euskaraz garelako.

# erreportajea



## 2.711 aldiz aplikatu da mozal legea Aiaraldean

2020ko martxoan Espainiako Gobernuak ezarritako alarma egoeraz geroztik nabarmen egin du gora mozal legeak isundutako herritarren kopurua. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Duela sei urte sartu zen indarrean 2015/4 Herritarren Segurtasunerako Lege Organikoa. Une honetan erreforma baten atarian dago mugimendu sozialen eta eskubide zibilen aurkako legetzat jo izan dena. Aiaraldean ehunka izan dira lege honek zigortutako herritarrak.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

2015eko uztailaren 1ean sartu zen indarrean mozal legea bezala ezagutzen den 2015/4 Hiritar Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoa. Espainiako Gobernuan zegoen Alderdi Popularrak bultzatu zuen lege berria, ordura arte indarrean zegoen 1992ko Corcuera legea bezala ezagututakoa ordezkatuz.

Bost kapitulutan banatutako 54 artikuluk osatzen dute Lege Organiko hau, eta falta oso larri, larri edo arin bezala sailkatzen ditu herritarrek egin ditzaketan arau-hauste desberdinak, tipologia bakoitzari

santzio ekonomiko zehatz bat ezarritik: Oso larriak 60.000 eurora arteko isunak, larriak 600 eta 30.000 bitartekoak, eta arinak 100 eta 600 euro bitartekoak. Orotarikoak dira Lege Organiko honek bere baitan aurreikusten dituen ekintza zigorgarriak: jakinarazi gabeko manifestazioak egitea, baimenik gabeko ikuskizunak edota festak antolatzea, polizia agente baten aurrean identifikatzeari uko egitea, polizia agente bat iraintzea, alkohola kalean edatea...

### Kritikak

Onartua izan zen egunetik bertatik gizarte eragileek gogor kritikatu zuten mozal

legea, herritarren askatasunak mugatu eta protesta ekimenak kriminalizatzea helburu zuela ulertuta. Legeak dakarren herritarren babesgabetasuna ere gaitzetsia izan zen, segurtasun indarren arbitrariotasunari bide ematen ziolako.

Mozal legeak izaera erabat zigortzailea du, eta zigor hauek bide administratibotik kudeatzeak, are gehiago sakontzen du herritarrek segurtasun indarren aurrean duten babesgabetasun egoeran. Izan ere, bide administratiboa hartzen duten zigorrak zuzen bide administratiboak kudeatzen ditu, eta helegiteak aurkeztea zein hauen ebazpena prozesu

motel eta garestia da Espainiako Justiziaren barruan. Gainera funtzionario publikoek jasotako akte "egiazkotasun-presuntzioa dute, kontrarik frogatu ezean".

Hori guztia dela eta, dozenaka izan ziren mozal legearen lehenengo urteetan honen kontra antolatu ziren protestak edota ekimenak, bai eta herritar zein mugimendu sozialetzako informazio kanpainak. Amurrioren bertan aurkeztu zen, esaterako, 2015eko urte hasieran oraindik tramitazioan zegoen mozal legearen aurkako Araba mailako dinamika.

Nazioartean ere agertu ziren lege honen kontrako iritzi eta mezuak. "Lege honek Francoren

erregimenaren egunik txarrenak oroitarazten ditu eta ez dator bat nazio demokratiko batekin", idatzi zuen The New York Times egunkariak, eta Nazio Batuen Erakundeko kide batzuek ere askatasun zibilen aurkako neurritzat jo zuten

### Zigorrak Aiaraldean

Indarrean sartu zen urtean bertan, 2015ean, Ertzaintzak 24 aldiz aplikatu zuen 2015/4 Lege Organikoa Aiaraldean: autoritatearekiko erresistentziagatik 4 isun, poliziarekiko errespetu faltengatik 9 isun, drogen kontsumoagatik 7 isun, armen erabileragatik 3 isun eta

animaliak kaltetzeagatik isun bat. Urtehorretan ere, Ertzaintzak 6.622 euroko isuna ezarri zien eskualdeko 11 gazteri Gasteizko Legebiltzarrean kateatzeagatik. Aiaraldeko gazteez gain, beste 12 arabar ere izan ziren isunduak euskal presoenetxeratzearنالde egindako ekimen horrengatik. Bakoitzak 602 euroko isuna jaso zuen, eta hau ez ordaintzea erabaki zuten "mozal legea desobeditzeko" asmoarekin.

2015etik aurrera, gora egin du etengabe 2015/4 Lege Organikoa aplikatuz ezarri diren sartzioen kopurua Aiaraldean: 2016an 46 isun, 2017 69 isun, 2018an 75 isun eta 2019an 64 isun. Horien artean 3 dira 1983/9 Lege Organikoa arautzen duen biltzeko eskubidea ez errespetatzeagatik jarritako isunak, tartean aurkitzen da Altsasukoko gazteen askatasunaren alde Laudioko Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean egindako elkarretaratze bat.

#### 1.577 isun 2020an

Dena den, iaz jo zuen goiak mozal Legearen aplikazioak

## laz jo zuen goiak mozal legearen aplikazioak Aiaraldean; 1.577 isun tramitatu zituen Ertzaintzak guztira

Aiaraldean; 1.577 isun tramitatu zituen Ertzaintzak guztira. Izan ere, COVID-19aren aurrean ezarritako etxealdian Estatuko segurtasun-indarrek hau kontrolatzeko erabili zuten 2015eko legea.

Gauzak horrela 1.294 isun jarri zituzten iaz desobedientziari lotuta, horietatik 884 alarma agoera ez errespetatzeagatik, eta beste 352 zirkulatzeko mugak edota taldean elkartzeko mugak ez errespetatzeagatik, hala nola: gaueko etxeratze agindua ez betetzeagatik, sei lagun baino gehiago elkartzeagatik edota beste udalerrri batera joateagatik.

Bestelako isun tipologietan ere marka guztiak hautsi zituen 2020ak: poliziei egindako errespetu faltengatik 87 isun jarri ziren, 144 herritar isundu zituzten droga kontsumoagatik, 20 herritar armen erabileragatik, 4 isun jarri ziren poliziaren lana oztopatzeagatik...

#### 2021a bide berdinetik

Aurten ere, ehunka izan dira mozal legeak Aiaraldean zigortutako herritarrak: Poliziak

856 isun jarri ditu urtarrila eta urria bitarte, horietatik 580 COVID-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako neurri murriztaileak ez betetzeagatik.

Seiurtehauetan lehendabizikoz jarri ditu Ertzaintzak desordena larriengatik isunak Aiaraldean, 9 guztira, asko Tubacexeko greba mugagabearekin lotuta.

#### Polizia grabatzea


Tubacexeko grebari lotuta ere, Ertzaintzak 2015/4 Lege Organikoa baliatu izan du poliziaren jarduna grabatua izan zedin ekiditeko asmoz, eta dozenaka lagun identifikatu ditu horrengatik. Ideia orokortua da mozal legeak polizia grabatzea debekatzen duela, baina arlo honetan errealitatea bestelakoa da. Araua argia da: poliziak grabatu daitezke. Irudi horien erabilerak ekar dezake arau-haustea, ez irudiak propioki hartzea. Arau-hauste bezala hartukodira "polizien segurtasuna edota operazio polizialaren arrakasta arriskuan" jartzen duten irudiak zabaltzea. Gainera, poliziaren balizko salaketa batek behar bezala arrazoitu beharko

ditu argudio horiek. Mozal legearen aplikazio arbitrarioa, baina, beti egongo da hor. Poliziak herritarrak identifikatu ditzake grabatzen aritzeagatik, bideo eta argazki horiek gerora izan dezaketen erabilera okerra ikertze aldera. Ezin du inolaz ere irudiak filmatzea ekidin.

#### Lege erreforma

Une honetan 2015/4 Herritarren Segurtasunerako Lege Organikoa aldatzeko eztabaida zabalik dago. Espainiako gobernu kide diren PSOE eta Unidas Podemos alderdiek mozal legea aldatzea adostu dute, EAJk aurkeztutako proposamen batetik abiatuta.

Emendakin desberdinak prestatzen ari dira, legean aldaketak egiteko. Honek polizia sindikatuen haserrea piztu du Espainian, ustez poliziaren jarduna mugatzen duelakoan, adibidez polizia atestatuen egiazkotasuna zalantzan jar liteke balizko prozedura judicial batean. Dena den, ikusteke dago erreformak zer berri ekarriko duen eta zer mantenduko duen bere horretan.



2020ko martxoan Espainiako Gobernuak ezarritako alarma egoeraz geroztik nabarmen egin du gora mozal legeak isundutako herritarren kopurua. Aiaraldea.eus

# BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan  
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.  
**Salbuespenik gabe.**



bertako  
igogailuak | ascensores

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)



ZULORA JAUSITAKO  
OBJEKTUAK  
BERRESKURATZEA



HARRAPATZE  
EGOERAK



IGOGAILUKO  
ZARATAK



365/24/7

**ARABA**  
945 712 822  
**GIPUZKOA**  
943 903 450

**BIZKAIA**  
946 523 935  
**NAFARROA**  
848 870 917

# herriz herri

## Artziniega

Arabako Ur Partzuergotik kanpo egoteak dakarren kostu ekonomiko altua dela eta, Artziniegako Udalak Urbiden sartzea beste aukerarik ez duela azaldu du. Erabakia ezohiko udal osoko bilkura batean berretsi behar dute oraindik.

# Urbiden sartzea erabaki du Udal Gobernuak



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

2020ko abenduan gauzatu zen Aiaraldeko Ur Partzuergoaren desegitea. Prozesuaren bat-batekotasunak eta partzuergo berriarekiko zalantzek mesfidantza sortu zuten hainbat udal, administrazio batzar eta alderdi politikoren artean. Egoera horretan zegoen Artziniegako Udala, eta sei hilabeteko epea eskatu zuen beste aukera posibleak aztertzeko.

### Tarifa itogarriak

Azaroaren 15ean bilera irekia antolatu zuen Artziniegako Udal Gobernuak, hilabeteluzee ostean hartutako erabakia herritarrekin elkarbanatu eta hauen kezak jasotzeko. Udal Gobernuak Urbidera batzeko proposamena aurkeztu zuen bertan.

Proposamena, ordea, Urbidek azaro hasieran onartutako tarifek baldintzatu dute nagusiki, Joseba Vivanco alkateak eta Arkaitz San Jose zinegotziak azaldukoaren arabera. Izan ere, partzuergotik kanpo egoteagatik Urbidek hirukoiztu egiten du hornitutako uraren prezioa. "Kantauriko Urkideztaren barruan hilean 7.000 eta 9.000 euro artean ordaintzen genituen urtegiko uraren horniduragaitik, orain 21.000 euro ordaintzeraino iritsi ginateke, baldin eta Urbide barruan ez bagaude, eta horrek eragin zuzena izango luke herritarren fakturan", adierazi du alkateak. "Erabat bidegabekoa da, ura bezalako oinarritzko zerbitzu batengatik horrelako prezioak ezartzea", erantsi du San Josek.

Deseginda egon arren, CAKUk (Kantauriko Urkideztak) kudeatzen du oraindik uraren hornidura Artziniegan, behin betiko trantsizioa gauzatu arte. Datu zehatzetara ekarrita: 2020 eta 2021ean Kantauriko Urkideztak



Bilera irekia egin zuten Artziniegako udalbatza aretoan, erabakiaren nondik norakoak herritarrekin elkarbanatzeko. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

0,391 euro kobratu dizkio Artziniegako Udalari hornitutako ur metro kubiko bakoitzeko, urtean 102.000 euro guztira. Horrek 103 euro suposatzen zuen udalerriko bizilagunen sei hileko ur fakturan, batz bestez. Gaur egungo egoera mantenduz gero, hots, Artziniegak Urbidetik kanpo jarraituko balu, azken honek 0,944 eurotan kobratuko luke ur metro kubiko bakoitza, urteko gastua 247.000 eurora igoz. 145.000 euroko igoerak, halaber, herritarren fakturan ere igoera nabarmena ekarriko luke.

### Uraren zikloa Artziniegan

Artziniegak ez du ura biltzeko sistema propiorik. Udalerriarren parean dagoen Burgoseko Angostinako urtegitik jasotzen

du ura; horrela egin du 1999tik. Herrirainoko hornidura CAKUren esku zegoen lehen, eta Urbideren eskumena da orain. Partzuergoak Artziniegako ur-biltegitiraino bideratzen ditu urak, lehen mailako sarea deritzo horri. Zerbitzu hori, hain zuzen ere, Urbidek hiru bider garestitu duena.

Bigarren mailako sarea, hots, etxez etxeko banaketa, saneamendu eta estolderia, Artziniegako Udalaren esku egon da orain arte, Kantauriko Urkideztaren barruan zegoen bitartean. Udala arduratzen zen sarearen mantenuaz, herritarren beharrak artatzeaz edota fakturak kudeatzeaz. Urbideren integrazioa termino berdinetan egitea planteatu zuen Udal Gobernuak, hau da, Urbideri uraren kaptazio

eta adukzioa lagatzea, bigarren mailako sarearen ardura herrian utzita, baina hau ere ez da ekonomikoki bideragarria. "Aukera bakarra uzten digute: zerbitzuen %100 partzuergoaren eskuetan utzita Urbiden integrazioa" adierazi zuen Arkaitz San Josek udalbatza aretoan egindako bileran.

Aukerak horrek, ordea, ur-fakturan inolako igoerarik ez egotea eragiten badu ere, eskumenez husten du tokiko administrazioa, eta herritarren gertutasunarekin hautsi, Joseba Vivanco adierazi zuenaren arabera: "Aurrerantzean herritarrek ur-hargune bat behar izatekotan, edota edozein matxuraren berri eman nahi badute, Audio eta Amurrioko bulego batera deitu beharko dute". Gauzak hala, ekonomiak

derrigortuta integratuko da Artziniegako Udala Urbiden, CAKUren disoluziotik urtebetera. Erabakia Udal Osoko Bilkura batean berretsi behar bada ere, beste biderik ez du aurkitu Udal Gobernuak ur horniduraren garestitzea ekiditeko.

Urte gutxiren buruan eraikitzen hasiko diren araztegien kudeaketara dago bideratuta nagusiki Arabako Foru Aldundiak sustatutako Urbide partzuergoa. Piezagarrantzitsuadufaltan, ordea. Izan ere, Gasteizko eta inguruko herrietako urak kudeatzen dituen AMVISAK uko egin dio partzuergoari batzeari. Horrek aurreikuspen ekonomikoak zaildu ditu, eta Foru Aldundiak diru jarri beharko du fakturaren garestitzea ekiditeko.

## Orozko

## Lanuzteak egiten ari dira Artiachen, azaroaren 22tik 30era bitartean



Lan hitzarmenaren alde borrokan ari dira Artiaheko langileak. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Artiach enpresako langile batzordearen gehiengoak –hau da, ELAk, LABek eta ESK-k– 4 orduko lanuzteak deitu dituzte hurrengo egunotan. Astelehenean, azaroaren 22an, abiatu zituzten portestak, eta 30era arte egingo dituzte.

10:00etatik 14:00ak arte, 14:00etatik 18:00ak arte eta 22:00etatik 02:00ak arte. izango dira mobilizazioak lantegiko sarreran bertan. Bestelako elkarretaratze eta ekimenak

ere egingo dituzte lan gatazkari ikusgarritasuna emateko.

### Lan hitzarmen okerragoa

Lan hitzarmenaren negoziazioan enpresak duen jarrera dela eta antolatu egin dituzte mobilizazioak Langile erakundeek adierazi dute 2020an 7 milioi euroko etekinak lortu arren, Adams Food enpresak lanaldia luzatu nahi duela, malgutasuna areagotu eta soldata eskala bikoitza ezartzearekin batera.

Hori guztia beteko ez balitz, zuzendaritzakaipatuduez dutela

inbertsiorik egingo Orozkoko lantegian. Sindikatuen aburuz, Adams Foodeko beste enpresa batzuetan hobekuntzak egiten ari dira eskualdean lortutako mozkinekin, tokiko azpiegiturek okerrera egiten duten bitartean.

Horrez gain, ELAk, LABek eta ESKk salatu dute langileak kikiltzen saiatzen ari dela konpainia. Horren guztiaren aurrean, sindikatuek aldarrikatu dute Orozkoko fabrikako beharginek ateratzen dutela aurrera eguneroko Artiach eta behar den moduan saritu behar zaiela.

## Santa Luzia azoka ospatuko dute berriro datorren abenduaren 11n

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Gutzika, eta beti ere pandemiaren eboluzio gorabeheratsua gertutik jarraituta, urteroko hainbat ekintza berreskuratzeari ekin dio Orozkoko Udalak, tartean, abenduak Santa Luzia azoka.

Gauzak horrela abenduaren 11n antolatuko dute feria, baina aurtengoan ez dute ohiko Terreña arrazako behien txapelketa egingo, COVID-19aren eraginagaitik, eta Udalak ziurtatu duenez "osasun neurri

guztiak errespetatuko dira" gainerako ekintzetan.

Goizeko 10:00etatik 14:00etara egingo dute tokiko produktuen azoka. 11:00etatik 14:00etara Felix Pikatza arotzaren Kalaka egurrezko jolasak egongo dira gazteen eskura, baita 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzako bisita gidatuak ere. Azkenik, artisauen zonaldean saskigintza ikuskizuna eskainiko dute.

Gainera, 30 euroko erosketa bakoitzeko merkatuko produktuez osatutako opari bana eskainiko diete herritarrei.




*Dastatu betiko  
esnearen zaporea*

EKO  
NO-  
MA  
TUA

ELIKATZEKO  
FAK  
TO-  
RIA

Egin eskaera  
[www.ekonomatua.eus](http://www.ekonomatua.eus)-en  
edo dendan bertan

LAUDIOKO INDUSTRIALDEA 4-8  
> Asteleheneetik ostiralera  
11:30 – 14:00 eta 17:00 – 20:00  
> Larunbatetan 10:30 – 14:00




**arrate**  
gestoria aholkularitza aseguruak

Iturralde kalea 2, AMURRIO  
945 89 02 06  
[info@arrategestoria.com](mailto:info@arrategestoria.com)  
[www.arrategestoria.com](http://www.arrategestoria.com)

20 urte  
baino gehiagoko  
esperientzia



MINTZATU KONTSUMITU INPLIKATU



# EUSKARAKTIBATU! AIARALDEA



**ANDER AÑIBARRO**

## LAUDIOKO ALKATEA

*Euskarak mendeak daramatza ahoz aho, bihotzez bihotz, saltoka. Bide luzea egin du eta gaur bere Nazioarteko Eguna ospatuko du. Gaur euskal herritarrek ospatzen dutena ez da egun bakarera mugatzen. Gure konpromisoa, gaur egun gure etorkizuna den eta aurrerantzean ere hala izango den hizkuntza zaintzea, mimatzea eta hitz egitea da.*



## AINZANE ITURRIBARRIA



### ARTZINIEGAKO UDALEKO EUSKARA ZINEGOTZIA

*Gau eta egun euskaraz bizi nahi dugulako ahalegindu behar dugu euskara gero eta gehiago egiten, kaleratzen, ikasten, transmititzen, kate-maila osatzen jarraitzeko. Euskaraz dakien bakoitzaren esku baitago kate hau luzatzen laguntzea edo katea moztea.*



## GENTZA ALAMILLO



### AIARAKO ALKATEA

*Aurtengoa oso berezia da Aiararentzat, izan ere, pandemiaren ondorioz urtebete baino gehiagoko etenaldiaren ondoren, gure hizkuntza propioarekiko maitasuna berreskuratzeko unea iritsi da. Horretarako, datorren abenduaren 4an, Luiaondon, Euskararen Jaiaz gozatzeko aukera izango dugu egun osoan zehar. Heldu da EUSKARAKTIBATU! Goazen!*



**DAVID GUTIERREZ**

### URDUÑAKO KULTURA, EUSKARA, HEZKUNTZA ETA KIROL ZINEGOTZIA

*Euskararen Eguna helduko da gurera berriro! Txokolate janaz, ihes gelez, ipuin kontaketaz eta diskofestaz gozatzeko dugu urduñarrok. Abenduaren 4an, gainera, Luiaondora joko dugu, eskualdeko Euskararen Jaira! Ospakizuna bada ere, askoz gehiago da! Euskararen normalizazioaren aldeko konpromiso irmoa adierazteko unea, hain zuzen.*





## JON ESCUZA

### OKONDOKO ALKATEA

Abenduaren 3an oso egun garrantzitsua ospatzen dugu: Euskararen Nazioarteko Eguna. Hau da, gure hizkuntza propioa eta Okondon egunero erabiltzen dugun hizkuntzetako bat gure bizilagunekin komunikatzeko. Horregatik, munduko hizkuntza aberatsenetako bat ikasten, hitz egiten eta, batez ere, euskaraz gozaten jarraitzea animatzen dut. Gora Euskararen Eguna!



## TXUTXI ARIZNABARRETA

### ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO ALKATEA

Mende erdi geroago, Joxean Artze poetaren hitzak erabateko gaurkotasuna dute: "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitzegiten ez dutelako baizik". Inoiz baino jende gehiago euskara jakitea lortzetik, kalean gero eta gutxiago erabiltzera pasatu gara. Alarma piztu da. Zerbait egin behar dugu!



## JABI ASURMENDI

### ARAKALDOKO ALKATEA

Eskertzekoa eta mirestekoa da euskalgintzak hamarkadetan egindako lana eta ahalegina eta horri esker, handiak izan dira lorpenak. Hala ere, datuak ez dira baikorrak izateko modukoak erabilerari eta hizkuntza eskubideei dagokienez, instituzioei ere erabaki eta urrats ausartak eta sendoak egitea dagokigu.



## PEDRO MARI INTXAURRAGA



### OROZKOKO ALKATEA

Abenduaren 3a ospatuko dogu barrero be orozkoarrok! Luiaondon antolatu da aurten Euskerearen Jaieguna eta herritar guztiok gonbidatu gura zaituet bertara, danok batera euskerearen alde egin daigun aurrera. Gogoratu! 365 eguneko lana da euskereari bultzada emotea! Halandaze, segidu daigun aurrera euskerearen bidean!



## ENCINA CASTRESANA

### AIARAKO KUADRILAKO PRESIDENTEA

Aiarako Kuadrillatik uste dugu oso garrantzitsua dela euskara bizitzea eta gure inguruko arlo eta jarduera guztietan zeharkakoa izatea. Horregatik, gure konpromisoa haurtzaroan, gaztaroan eta familietan erabiltzeko jarduerak dinamizatuz hasi eta hizkuntza-paisaia zaindu eta zabaltzeraino doa.

## TXERRA MOLINUEVO



### AMURRIOKO ALKATEA

Euskara gure eguneroko errealitatea izan dadin lanean jarraitzen dugu Amurrioko Udaletxetik. Erronka handia dugu aurretik baina ez dugu etsiko, euskaraz bizitzeko ahaleginak egiten jarraituko dugu, gure hizkuntza zainduz eta merezi duen lekua emanez. Berotzen joan 22. Korrika Amurriotik irtetzen da eta!



## babestutako edukia

# OPARITU TOKIKOA ETA EKOLOGIKOA

**PERTSO-  
NALIZATU  
SASKIA!**

Barazkijaleak  
ere

Euskal Herriko eta Aiaraldeko produktuekin osatutako saskiak, tamaina eta prezio ezberdinetakoak. Nahi izanez gero, pretsonalizatu dezakezu.



40,00€  
\*36,00€



58,00€  
\*54,00€



76,00€  
\*70,00€

PRODUKTU GEHIGARRIAK

SHIITAKE FRESKOA  
Delika2 - 200 gr.  
3,63€ \*3,27€



GAZTA ONDUA  
Lusuri - 590 gr.  
13,83€ \*12,45€



VERMOUTH CORRIA  
Barañano  
9,00€ \*8,11€



\* Bazkideek  
**%10**  
**DESKONTUA**  
dute produktu  
guztietan  
**EGIN ZAITEZ**  
**BAZKIDE!**



[www.ekonomatua.eus-en](http://www.ekonomatua.eus-en) salgai edo

Laudioko industrialdean 4-8 astelehenetik- ostiralera 11:30-14:00 eta  
17:00-20:00 eta larunbatetan 10:30-14:00



## Amurrio

## Amurriotik hasiko da 22. Korrika

Testua  
Izar Mendiguren Cosgaya

Amurriok berebiziko protagonismoa izango du Korrikaren 22. edizioan. Izan ere, bertatik abiatuko da martxoaren 31n euskararen aldeko AEKren ekimena. Berez, aurtan egokitzen zen Euskal Herria lasterka zeharkatzea, baina koronabirusak eragindako pandemia medio urtebete atzeratzea erabaki zuten iazko urrian. 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era ospatuko da 22.edizioa. Eta, ez edonola: Amurrio da hasierarako aukeratutako herria, eta Donostian emango diote

amaiera. Logotipoa eta leloa ere aurkeztu zuten Donostian egindako agerraldian: *Hitzekin* lema izango du oraingoan euskal hizkuntza bultzatzeko proiektuak. Pirritx, Porrotx eta Marimotos omenduko ditu aurtengo Korrikak, euskararekiko konpromisoagatik eta eraginagatik.

Amurrioko AEKkoek ilusioz helduditeerronkari: "Euskarak kalea behar du, jendeak Korrika behardueta Korrikak jendearen konpromisoa eta ilusioa behar ditu. Aldekotasunetik konpromisora salto egin behar dugu". Txerra Molinuevo alkateak, bestalde, ohorea izango dela azpimarratu du.



MAITE BENITO

AEK-ko IRAKASLEA

## Korrika hasiera Amurrion

Zirrara, ikaragarritzko zirrara sentitu nuen nire baitan euskaltegira KORRIKA 22 Amurrion hasteko proposamena heldu zitzaigunean. Lehenengo beldurrak gainditu ostean, une horretan azken urteetan egindako lanak merezi izan duela sentitu nuen.

Zoritarrez eta zorionez, AEK-k izan duen ibilbidea ez da erraza izan, eta Amurrio ez da salbuespena. Zorionez esan nahi dut, bizi izandako momentu horiek irakasle taldea indartu egin dutelako. Egun, lankideak baino gehiago, Amurrioko AEK-n familia osatu dugu, eta horrek, ikasleengan isla duelakoan nago.

AEK-n aritzea ez da soilik irakaslea izatea, baizik eta barruan daramazun euskararekiko maitasuna transmititzen saiatzea. 31 urtetan hori egiten ahalegindu naiz, eta oso harro nago.

KORRIKA 22 Amurrion hastea saria da, bai AEKideontzat bai Aiaraldeko guztiontzat. Une latz hauetan haize freskoa behar dugu, eta ziur nago denon ahaleginarekin egun zoragarria eta ahaztezina izango dela; are gehiago, pairatzen ari garen egoerari aurre egiteko bultzada emango digula.

Bukatzeko, ez dut aurtengo omenduetako bat ahaztu nahi, nire laguna Mertxe, Marimots. Orain dela 30 urte euskarak elkartu gintuen Errigoitin, eta orain KORRIKAK berriro batuko gaitu Amurrion, hau patua!

Gora KORRIKA! Gora Amurrio! Gora AEK!

## Laudio

## 22,89 milioi euroko plan ekonomikoa garatu du Udal Gobernuak

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Azken uneko sorpresarik egon ezean, gaur -azaroak 24-onartuko dira Laudioko Udal Aurrekontuak, horretarako berariaz egingo den plenoan. Prentsaurrekoa egin zuten astelehenean Udal Gobernuo kideek, 2022ko aurreikuspen ekonomikoren nondik norakoak aletzeko.

Nabarmendu zuenez, 22,89 milioi euro baliatuko dituzte guztira. Udal euskaltegiak, bere aldetik, 789.688 euroko aurrekontua izango du. Añibarrok aipatu duenez, jaitsiera egon da iazko aurrekontuekiko, baina "bi diru-partida garrantzitsu" kendu direlako: uraren kudeaketarena (Udala Urbiden sartuta aurreztuko delako) eta udal hiletgiarena. "Hala ere, partida horiek kontuan hartuko ez balira, iaztik hona aurrekontuetan %5ko igoera egon dela esan ahalko genuke", azaldu du Eva Marquinez Blanco zinegotziak.

Udal gobernuko kideek hainbat gauza gorai patu dituzte egindako lanetik. Alde batetik, nabarmendu dute hirugarren urtez jarraian onartuko dituztela aurrekontuak urtea hasi baino lehen. "Urteko lehen egunetik partidak gaituta egotea ekarriko du horrek", azpimarratu du Marquinezek. Bestetik, "aurrekontu parte hartzaileak" direla ziurtatu dute, egindako parte-hartze prozesuetan jasotako ekarpenen "ia %100a" jaso dutelako.

## Rokodromoa, parke berriak...

1,59 milioi euro bideratuko dituzte inbertsioetara. Sei proiektu nagusi egin nahi dituzte: Jose Matia kalean eta inguruan zaborra jasotzeko sistema pneumatikoa ezartzea, rokodromoa eraikitzea Latio-rroko frontoian, umeentzako gune berria Lamuza parkean, Lamuza 21-35. zenbakietako plana urbanizat-

zea, nagusien zentroa berritzea, Ellakuriko igerilekuetako azpiegiturak hobetzea, Antzokia eraikitze-kolizitazioa ere atera nahi dute aurtentzen. Baina, azaldu dutenez, horretarako dirua ez da aurrekontuetatik aterako, Udal Lur-zoruaren Ondaretik baizik.

## Diru-sarrerak

Udalaren diru-sarrerei dagokionez, tokiko erakundeak 5,9 milioi euro jasotzea aurreikusi du zerga zuzenen bidez. Marquinez zinegotziak azaldu du ahalegina egin dutela Ondasun Higiezeinen Gaineko Zerga "progresiboagoa" izan dadin;

hau da, "Laudiokofamiliak" gutxiago ordaindu dezaten, jabe handien aurrean.

## Europako funtsak

Bestetik, Udal Gobernuo kideek jakinarazi dute milioi euro baino gehiago eskatu dutela Europako Next Generation Funtseko diru-laguntzetara: "10.000 euro eskatu ditugu Hiri Agenda garatzeko eta ia milioi bat Abasto plazako merkaturak birgaitzeko". Nabarmendu dutenez, orain arte Europatik etorri diren laguntza guztietara aurkeztu dituzte proiektuak, eta berdina egin nahi dute aurrerantzean.

**SANTA LUZIA**  
**AZOKA**

Abenduak 11, larunbata

NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN PRODUKTUAK ETA ARTISAUTZA

EGITARAUA

- Bertako nekazaritzako elikagaien eta artisautza azoka 10:00-14:00
- Umeentzako azokara bisita gidatuak 10:00etatik aurrera
- Kalaka Jokuak 11:00tik 14:00ra
- Merkatuaren ordutegian saskigintzako erakustaldia frontoian.

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea Asociación de Desarrollo Rural  
Gorbeia  
Bizkaia  
orozko

# herriz herri

Aiaraldea

## 3.640 euro jaso dituzte Tubacexeko langileek Cadizeko grebalarientzat

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Tubacex enpresako ia 200 langilek ekarpen ekonomiko egin dute Cadizen greban dauden behargineiek elkartasuna adierazteko.

Horrela, 3.640 euro batu dituzte metalaren sektoreko

protestak babesteko. Asteburuan hasi ziren Aiaraldeko fabriketako langileak egitasmoa zabaltzen euren artean, eta bart gauean joango ziren Andaluziako hirira. Euren asmoa gaur-azaroak 24- eta bihar-azaroak 25- Cadizen egotea eta protestetako babestea da.

Tubacexeko langileek 236 egun bete zituzten greban kaleratzeen eta prekarizazioaren kontra eta bide horretan hainbat tokitako behargin zein ekintzaileen elkartasuna jaso zuten. Greba amaitzean nabarmendu zuten jasotako laguntza guztia ez zutela ahaztuko, Erresistentzia Kutxako kideek bereziki.

## Hainbat erakunde publikorekin bildu ostean, Hiltegia Ez Itxi! plataformak “ardura eza” salatu du

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Hiltegia Ez Itxi! plataformak prentsa oharra zabaldu du adierazteko bere etsipena Laudioko udal hiltegiaren itxieraren harira. Taldeko kideak diren Jose Antonio Gorbea aiarrak eta Unai Ulibarri okondoarrak Arabako Batzar Nagusien Nekazaritza Batzordean parte hartu zuten ostegunean, eta salatu zuten azpiegitura horrek ez funtzionatzeak suposatzen duela tokiko ekoizleen zein harakinen etorkizuna kolokan jartzea.

Halaber, Nekazaritza Diputatuari galdetu zioten instalazio bera irekitzeko asmoa ote dagoen ekimen pribatuaren bidez, baina ordezkariak ukatu zuten

edozer berri izatea horri buruz. Arabako erakundeekin ez ezik, URArekin ere batu da plataforma, eta Eusko Jaurlaritzako entitateak azaldu zien 2019tik ez dutela isurketa berririk erregistratu. Uraren kudeaketari lotuta ere, Urbide Arabako partzuegoarekin ere elkartu zen plataforma. Horri gehitu zion 2019an adostutako irtenbidea a proposa zela, inbertsio handiagorik behar izan gabe.

Elkarrizketa horien guztien ostean, Hiltegia Ez Itxi! osatzen duten eragile ekonomikoek honakoa ondorioztatu dute: “Pilota pasatzeraz eta euren ekintzen erantzukizunak ez onartzeraz jolasten diren bitartean, udal hiltegitik hornitzen ziren saltoki txikien eta lehenengo sektorearen egoera kritikoa da, eta ez du ematen konponbiderik dagoenik”.

## Beldur Barik Aiaraldea lehiaketako sariak banatu dituzte



Arespalditzan egin zuten sarien banaketa. Aiarako Kuadrilla

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Beldur Barik Aiaraldea lehiaketaren VII. edizioaren sari banaketa izan zen azaroaren 19an Arespalditzan. Egitasmoak indarkeria matxistaren kontrako jarrera irmoak zabaltzea du helburu eta eskualdeko hainbat ikastetxek parte hartu dute bideoak sortuta.

Aiarako, Artziniegako,

Amurrioko, Laudioko, Okondoko, eta Orozkoko udalek zein Aiarako Kuadrillak antolatzen duten ekimenak 17 lan jaso ditu aurretik eta erakundeek eskertu dute bereziki Artekoren Ama Ikastetxea, Etxaurren Ikastola, Zaroabe BHI, Amaurre Ikastetxea, Zabaleko Ikastetxea, Latorro Ikastetxea, Fabian Legorburu Ikastetxea, Laudioko institutua eta Laudio Ikastola hezkuntza zentroen partaidetza.

AMATASUNAK  
BALDINTZATZEA

BADA HORRENBESTERAKO



## barestutako edukia

Euskaraz amets egin,  
ikasi, idatzi, lan egin,  
maitemindu, jolastu,  
gozatu, sentitu...  
**zu zeu izan Kutxabanken  
ere, bizi euskaraz.**

Aukeratu euskara kutxabankeko harremanetarako.  
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.



Abenduak 3.  
Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:  
[www.kutxabank.eus](http://www.kutxabank.eus)

## erreportajea

# Nork erasotzen ditu animaliak?



Urduñan hainbat katu tirokatu zituzten urrian. Aiaraldea.eus

Tiroketak, pozoitutako janaria, toki publikoetan jarritako zepoak... animalien aurkako eraso ugari jazo dira eskualdean azken urteetan. Salaketa ugari jaso ditu poliziak.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Iragan astean izan zen: bizilagun batek pozoiz betetako hegaluze lata bat topatu zuen Aretan, ustez, animaliak intoxikatzeke. Udaltzaingoa bertaratu zen, baina ez zuen prozedurarik ireki. Izan ere, pozoiak ez zuten inorkaltetu, katu edo txakurren batur bildubaino lehen bota zutelako zaborrera. Baina beti ez da horrela izan. 2020ko abenduan hirutxakur hil ziren Laudioko Gardea auzoan, estrikninaz pozoituta. 2018an, aldiz, bi katu pozoitu zituzten Latorro auzoan, eta horietako bat hil egin zen.

### Tiroketak Urduñan

Pozoia ez da izan animalien aurka erabili den osagai bakarra. Kasu batzuetan iltzeak sartu dituzte janariaren barruan. Aretan jazo zen gertaera hori, duela bost urte. Txakur batek iltzea irentsi zuen, eta ebakuntza egin behar izan zioten osatzeko. Belandian beste txakur bat hil zen iaz, bide publiko batean jarritako zepo baten ondorioz.

Baina gertaerarik deigarrienak iragan hilabetean jazo ziren, Urduñan. 7 hilabeteko katu batek hainbat perdigoikada jaso ditu Urduñan, Landatas inguruan, ezezagun baten eskutik. Jabeek al baitariarengana eraman zutenean honek esan zien beste

bi kasu gehiago egon zirela gutxienez. "Antzeko kasu bat izan genuen duela sei hilabete. Beste katubattirokatuzuten Tertangan, eta hil egin zen", azaldu zion Alexei Sanchez Puzo al baitariak Aiaraldea Komunikabideari.

### 6 salaketa bi urtetan

Aiaraldea Komunikabideak gai honi buruz galdetu dio Ertzaintzari. Poliziak horrelako 6 kasu jaso ditu 2019tik hona. Datu horiek ikusita, ondorio argi bat ateratu daiteke: kasu asko salatu gabe geratzen dira. Izan ere, 2021ean poliziak ez du kasurik erregistratu eskualdean, egon diren arren.

Hala ere, animalien

**Azken urteetan hainbat txakur hil dira pozoindutako janaria irensteagatik. Urduñan, aldiz, zenbait katu tirokatu zituzten iragan hilabetean**

jabeek aldarrikatu dute horrelako egoerei merezi duten garrantzia eman behar zaiela. "Badaude euren katu edo txakurrak euren seme-alabak izango balira bezala tratatzen dituzten pertsonak. Animalia horiek kaltetuta min emozional handia egin ahal zaie pertsona horiei", azaldu diote Urduñan tirokatutako katuetako baten jabeek Aiaraldea Komunikabideari, eta honako mezu hau zabaldu dute: "Gizakiak gure adimenagatik bereizten bagara beste animalienagatik, erakuts dezagun hori, eta ez dezagun jokatu burugabeko astapetroak bezala".

## KASUAK

Animalien aurkako erasoen hainbat salaketa jaso ditu Ertzaintzak azken urteetan.

### 2019

**Amurrio:** Txakurren, katuen eta oiloen aurka perdigoiekin egindako tiroak salatu zituzten.

### 2020

**Orozko:** Animalien aurkako tratu txarrak salatu zituzten, ahiduragatik.


**Urduña:** Txakur bat harrapatuta geratu zen zepo batean.



**Okondo:** Txakur bat lapurtu zuten eta gero hilik agertu zen, eskopeta tiro batekin.

**Orozko:** Txakur bat hil zen tiro baten ondorioz.

**Laudio:** Bi txakur hil ziren pozoituta.



Iturria: Ertzaintza

# “Negu familiako beste kide bat zen guretzat, oso gaizki pasa genuen hil zenean”

**ANDREA ETA SOLVIK HERRERA ANGULO** AHIZPA LAUDIOARREN TXAKURRA 2020KO ABENDUAN HIL ZEN, GARDEAN PASEOAN ZEGOELA ESTRIKNINAZ POZITUTAKO HARAGIA JAN OSTEAN. AUZOKO BESTE BI TXAKUR ERE HIL ZITUZTEN.

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

**Duela ia urtebete hil zen zuen txakurra. Zer zen zehazki gertatu zena?**

**Solvik:** Ni berarekin atera nintzen paseoan, arratsaldeko laurak aldera. Nerbioiko Parke Linealean barrena aritu ginen, eta bueltan gentozela baratz baten alboan geratu zen eta zoezer jaten egon zen. Ni hurbildu nintzenez ez nuen ezer ikusi, baina arraroa iruditu zitzaidan txakurra horrenbeste denbora egotea hor, usaintzen. Etxera iristean, ordu erdi geroago, txarto ipini zen eta al baitariarengana eramanguen. Ezin izan genuen ezer egin.

**Estriknina zen jan zuen pozoia, ezta?**

**Solvik:** Bai. Nahiko azkar esan zigun al baitariak pozoia izan zitekeela, Negu oso zurrin jarri zelako, siku egongo baliz bezala. **Andrea:** Eta konbultsioak zituen gainera.

**Salaketa jarri zuten.**

**Andrea:** Bai, hurrengo egunean. Pozoia jan zuen tokira itzuli ginen eta haragi freskoa topatu genuen, hauts zuri batzuekin. Ertzaintzarenera joan ginen orduan salaketa jartzera, beste txakurrei berdina ez gertatzeko. Hau komentatu zigun inguru

bereko auzokide batek bi txakur zituela eta eurak ere pozoituta hil zirela.

**Solvik:** Guk salaketa jarri baino lehen topatu zituen jabeak bi txakur horiek hilik. Gabonak ziren, eta gizona ez zegoen bertan, beste toki batean bizi zelako. Abenduaren 25eko goizean topatu zituen, hilik.

**Nola bizi zenuten Neguren heriotza?**

**Andrea:** Oso gaizki. Jendeari kontatzen genionean gure egoeran jartzen zen, baina egia da baita entzun izan genuela animalia bat baino ez zela. Ume batekin edo persona batekin gertatuz gero kontua ez litzateke horrela geratuko. Guk jarritako salaketa ez da aurrera joan, animaliak ez dira horren garrantzitsuak pertsonentzat.

**Solvik:** Niretzat Negu oso garrantzitsua zen, familiako beste kide bat zen, eta gaizki pasatu genuen. Etxetik al baitariarengana egindako bidea oso azkar egin genuen kotxez. Ezin da pertsonen eta animalien arteko alderaketa egin, txakur bat izatea ez da seme-alaba bat edo ahizpa bat izatea bezalakoa. Ez da berdina, baina familiako kide garrantzitsua izan daiteke.

**Andrea:** Une horretan Negu niretzat ume bat bezalakoa zen, nire karguan zegoen, eta pena handia nabaritu genuen. Bere falta sumatzen dugu.

**Solvik:** Baina jende gehienak ez du horrela ulertzen.

**Zergatik uste duzue dagoela animaliak pozoitu nahi dituen jendea?**

**Solvik:** Neguren kasuan nik uste dut kontu-garbitzea izan zela. Baratzaren jabearekin hitz egin genuen eta esan zigun uste zuela bazekiela nor zen pozoia jarri zuena. Etxeko ate baten kanpoko aldean jarri zuten estriknina, eta eurek ere txakurrak zituzten.

**Andrea:** Hor soilik zegoen. Horregatik esan zigun baratzeko



jabeak uste zuela pozoia bere txakurrarentzat espresuki jarri zutela hor.

Hala ere, hau kasu berezi bat izan da. Egon diren beste kasuetan, nik uste dut badagoela jendea ez dituenak animaliak gogoko eta nazkatuta dagoena txakurrak zenbait tokitan (parkeetan, adibidez) solte ikusteaz. Larrañon ere egon zen garai bat zeinetan parkean pozoia jartzen zuten. Uste dut kasu horretan auzokideak izan daitezkeela. Baina badaude beste modu batzuk...

**Solvik:** Nikez dakit jende horrek zer puntutara arte dakien txakurrek hori jan dezaketela.

Kasu batzuetan, pozoia janez gero, al baitariarengana goiz eramanda animalia ez da hilko.

**Disuasio-neurri moduan egiten dutela uste duzue?**

**Solvik:** Gure kasua, esan bezala, ez zen horrelakoa izan. Baina uste dut kasu gehienetan horrela dela.

**Andrea:** Ez dute horrek izan ditzakeen ondorioetan pentsatzen.

**Solvik:** Jabeak sustoa hartzea dute helburu, eta lortzen dute. Orain txakurrekin goazenean urduri gaude uneoro, animaliak lurreko zoezer hartzen duen bakoitzean.



euskaraktibatu  
www.aresketaikastola.eus



## Pirritx, Porrotx eta Marimotos Amurriion izango dira azaroaren 28an

Astelehenean -azaroak 22- jarri ziren salgai, dagoeneko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldirako sarrerak. Ikuskizuna azaroaren 28an izango da, 18:00etan Bañueta kiroldegian. Euskara Arlotik adierazi dutenez, Amurrioko ikasleei eman diete lehentasuna: "2 urteko gelatik LH2 maila bitarteko ikasleek sarrera bikoitz bat dute bermatuta, heldu batekin joan ahalizateko".

Dena den, 1.800 lagunentzat egongo da toki oso sun neurriek ahalbidetzen badute, eta ez da aforo arazorik espero. Hala, astelehetik aurrera eskuragarri egongo dira sarrerak "nahi duen ororentzat".

### Sarrerak 3 euroren truke

3€ balioko dute sarrerak, Udalak jakinarazi duenez. Kultura Etxean egingo da salmenta, 26an. Internet bidez eman daiteke izena.

astelehenetik aurrera. "Egunean bertan ere erosi ahaliko dira kiroldegian, aurrez ez badira agortzen", zehaztu dute. Horretarako ordutegia ondorengoa da: astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara; eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara.

Aiaraldea Komunikabideak sarrera bikoitz bat zozkatuko du erabiltzaileen artean azaroaren 26an. Internet bidez eman daiteke izena.

### MUSIKA

#### 11.26 Ostirala

18:30 LAUDIO  
'AHORA TOCAN ELLAS'  
BIOLIN ETA PIANO  
KONZERTUA  
Azaroaren 25eko  
egitarauaren barruan  
Lamuza Parrokian

#### 11.26 Ostirala

22:30 AMURRIO  
LIHER  
Burubio Elkarteak

#### 11.26 Ostirala

23:00 LAUDIO  
OXABI ERROMERIA  
Sorgin taberna

#### 11.27 Larumbata

13:00 URDUINA  
X. MUSIKA POTEOA Jam  
Sessiona egingo dute  
Kalean zehar

#### 11.27 Larumbata

20:00 LAUDIO  
UDAZKEN MUSIKATUA:  
ARTE ON FUNDAZIOA  
San Pedro Eliza

#### 11.27 Larumbata

20:00 AMURRIO  
AIARALDEKO SOINU  
SISTEMA  
Amurrioko Gaztetxea

#### 11.28 Igandea

12:30 ARTZINIEGA  
BLEIBET ABESBATZA  
Fair Saturday ekimenaren  
barruan  
Arteko Gure Ama

#### 11.28 Igandea

19:00 LAUDIO  
UDAZKEN MUSIKATUA: SAN  
ROKE MUSIKA ELKARTEA  
San Pedro Eliza

#### 12.03 Ostirala

20:00 LAUDIO  
UDAZKEN MUSIKATUA:  
EZUST DUO  
San Pedro Eliza

#### 12.03 Ostirala

22:30 AMURRIO  
LA EXCAVADORA ETA  
YUGULAR  
Burubio Elkarteak

### KIROL JARDUERAK

#### 11.24 Asteazkena

19:00 AMURRIO

#### 12.03 Ostirala

12:00 OKONDO  
IPUIN KONTALARIA  
Okondoko Euskararen  
Egunen barruan  
Kultur Etxea

### IKUSKIZUNAK

#### 11.27 Larumbata

19:00 AMURRIO  
'BAT'  
Dantzas konpainiaren  
emandaldia  
Amurrio Antzokia

#### 11.28 Igandea

12:00 ARTZINIEGA  
BISITA ANTZEZTUAK  
ARTZINIEGAN  
Frontoia

#### 12.19 Igandea

18:00 LAUDIO  
'NIRE ZIGILUA.  
HOMOFOBIAREN (BESTE)  
ISTORIO BAT'  
Antzerkia eta txokolatea  
zikloaren barruan  
Faktoria

### BESTELAKO JARDUERAK

#### 11.24 Asteazkena

17:00 AMURRIO  
ZINE FORUMA: 'LA FIESTA DE  
DESPEDIDA'  
Amurrioko Nagusien  
Kontseiluak antolatuta  
Nagusien Etxea

#### 11.24 Asteazkena

19:00 AMURRIO  
ASANBLADA IREKIA: AITOR  
ETA GALDER ASKE  
'Ankerria stop!' ekimenak  
deltua  
Kultur Etxea

#### 11.24 Asteazkena

11:00 OROZKO  
ARTZAINZARI BURUZKO  
ERAKUSKETA  
Liburutegiaren sustapenerako  
VI. jardunaldien barruan  
Liburutegia

#### 11.26 Ostirala

17:00 OROZKO  
ARTZAINZAZA JOKOAK  
Liburutegiaren sustapenerako  
VI. jardunaldien barruan  
Liburutegia

#### 11.26 Ostirala

17:00 LAUDIO  
KALEKO SERIGRAFIA  
TAILERRA  
Azaroaren 25eko  
egitarauaren barruan

## Aiaraldeko Soinu Sistema gaztetxean



Amurrioko Gazte Asanbladak musika jaialdia antolatu du datorren azaroaren 27rako Amurrioko Gaztetxean. Aiaraldeko Soinu Sistemako kideak egongo dira bertan, eszena musikaleko beste hainbat kideekin batera. Arratsaldeko 20:00etan irekiko dituzte Gaztetxe atea, eta goizaldeko 2:00ak arte luzatuko da jai giroa. Datosen hilabeteetarako ekintza gehiago prestatzen ari dira.

## Artzaintzari buruzko jardunaldiak egiten ari dira Orozkoko liburutegian



Liburutegiaren sustapenerako XI. jardunaldien barruan artzaintza izan dute gai nagusi. Jardunaldiek liburutegia herrira zabaltzea dute helburu, eta honen erabilera sustatzea. Astelehenean hasizituzten jarduerak etadatorrenazaroaren 26ra arteluzatuko dira jardunaldiak. Hauen barruan, Orozkoko liburutegian artzaintzari lotutako liburuen bilduma bisitatzeko aukera egongo da, eguneroko liburutegiaren ordutegiaren baitan. Haurrentzako hainbat jarduera desberdinak ere prestatu dituzte Orozkoko liburutegian, jardunaldien gai nagusiari helduta. Azaroaren 25ean, osteguna, artzaintzari buruzko ipuin kontalaria prestatu dute arratsaldeko 17:00etan, 4 eta 8 urte arteko haurrei zuzenduta. Azaroaren 26an artzaintzaren kirol parkea atonduko dute Zuibiaur plazan.

## Kartelera



LAUDIOALDE  
ARETOA

**Madres paralelas**

**AZAROAK 27**  
LARUNBATA (3 euro)

18:30



DONIBANE  
ARETOA

**El último duelo**

**AZAROAK 28**  
IGANDEA (34,5)

19:00



AMURRIO  
ANTZOKIA

**La crónica francesa**

**AZAROAK 28, 29**  
IGANDEA ETA ASTELEHENA  
(3,5/5 euro)

19:30



LAUDIOALDE  
ARETOA

**Urtzen**

**ABENDUAK 4**

LARUNBATA (3 euro)

18:30

MENDI JARDUNALDIAK: 'EL GLACIAR DEL BALTORO EN INVIERNO'

Katekesi Aretoa

**11.26 Ostirala**

19:00 AMURRIO  
MENDI JARDUNALDIAK: MUNDUA BIZIKLETAN  
Gorbel Mendi Ibilaldiko XXXIV. bideo eta argazki laburren lehiaketako bideoak banatuko dituzte Katekesi Aretoa

**11.27 Larumbata**

08:00 LAUDIO  
ALTBEKO UR-JAUZIETARA TXANGOA  
Golkogane Mendi Taldeak antolatuta  
Laudio Institutua

**11.27 Larumbata**

19:00 AMURRIO  
MENDI JARDUNALDIAK: 'AUPA POU. UNA VIDA ENCORDADOS'  
Zaraobe institutua

**12.12 Larumbata**

09:30 AMURRIO  
AMURRIOKO III. KROSA Oinkariak Atletismo Taldeak antolatuta  
Refor kirolgunea

FAMILIA JARDUERAK

**11.28 Igandea**

10:300 LAUDIO  
NEGUKO TRUKE AZOKA  
Faktoria

**11.28 Igandea**

12:00 AMURRIO  
HAZIARABA  
Estimulazio artistiko goiztiarerrako landa eremuko jaialdia  
Amurrio Antzokia

**11.28 Igandea**

18:00 AMURRIO  
PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS  
Bañeta kiroldegia

**11.28 Igandea**

17:00 OKONDO  
MUFFINEN GABONETAKO ZUHAITZA  
11 urtetik gorakoentzako jarduera  
Kultur Etxea

Kultur Etxea

**11.26 Ostirala**

18:00 LAUDIO  
ARGAZKILARITZA DIGITALA  
12 eta 16 urte bitarteko gazteei bideratuta  
Faktoria

**11.27 Larumbata**

10:00 OROZKO  
AUTODEFENTSA FEMNISTA  
Maitena Monroy-k gidatutako tailerra  
Kultur Etxea

**11.27 Larumbata**

10:30 LAUDIO  
'EM PODER ARTE'  
Antzerki tailerra  
Kultur Etxea

**11.27 Larumbata**

12:30 AMURRIO  
DANTZA GARAIKIDEKO TAILERRA  
Bañeta kiroldegia

**11.27 Larumbata**

12:30 OKONDO  
ARDO DASTAKETA  
Okondoko Eusakararen Egunen barruan  
Kultur Etxea

**11.28 Igandea**

08:00 LAUDIO  
JON PAGA ZA GOGOAN  
Mendi ibilaldia  
Herriko Plaza

**11.28 Igandea**

18:00 OKONDO  
INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO ZINEFORUMA  
Kultur Etxea

**11.29 Astelehena**

17:30 LAUDIO  
'EZTEZ BETI DA EZTETZ'  
Kuentamek antolatutako bideo-foruma  
Kultur Etxea

**11.29 Astelehena**

19:00 URDUÑA  
HELDUENTZAKO NARRAZIO SAIOA  
Alondegia

**11.30 Asteartea**

12:00 URDUÑA  
MUGI ZAITEZ  
Erretiratuentzako kirol jarduera  
Erretiratuen egoitza

INFO +

aiaraldea.eus

# erreportajea

## “Urrats kolektibo” berria, “Aiaraldea defendatzen jarraitzeko”



Eskualdeko ehunka herritar bertaratu ziren iragan azaroaren 21ean Urduñako industriagunean egindako ekitaldira. Somolsa fabrika zenaren barruan egin zuten aurkezpen ekimena.



Testua **Txabi Alvarado Bñaires**  
Argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Ekitaldi jendetsua egin zuten larunbat eguerdian Urduñan, SOS Aiaraldea lemapean. Ehunka herritar bildu ziren Foru plazan, herri eta sektore ezberdinetakoak: eskualdeko lantegietako beharginak, zaintza sektoreko langileak, pentsiodunak, mugimendu feministako kideak, ikasleak, ikastetxepublikoetakofamiliak... Elkarrekin abiatu ziren jarraian, hiriko industriaguneraino.

**Langile ohien hitzartzea**  
Somolsa lantegia zenaren

barrura sartu ziren, eta hondakinen artean egin zuten ekitaldia. Aspaldi dago abandonatuta fabrika hori, eta bertako zein industriaguneko beste lantegietako behargin ohiak izan ziren lehenak hitza hartzen.

Lantegiaren itxieraren garai latzak eta horren aurka egindako borrokak ekarri zituzten gogora. "Ez dezagun pentsatu hau ezin denik berriro gertatu. Eskualdeko langile guztion erantzukizuna da hau berriro ez gertatzea".

Gauzak hala, indarrak batzen jarraitzeko deia luzatu zuten: "Jarrai dezagun indarrak batzen, gure atzetik datozenekueuren bizi proiektua Aiaraldean garatzeko aukera izan dezaten. Posible da,

gingo dugu. Ez ahaztu klase gorenakoak garela, langile klasekoak, alegia".

### Emergentziako puntuak

Tubacexeko langile bat eta ikastetxe bateko jantoki bateko behargin bat igo ziren jarraian oholtzara. Eurak arduratu ziren SOS Aiaraldea lemapean osatutako "emergentziako puntuak" aurkezteaz. Azaldu zuten, eskualdeko hainbat sektore eta eragileren artean osatu dituzte puntuak, hilabeteetako lanaren ostean.

### Interpelazioa instituzioei

Kritika zorrotza eta interpelazio zuzena egin zieten instituzio publikoek larunbateko ekitaldian: "Ez

## Borrokan jarraitzeko tresna gisa plazaratu dituzte emergentziako puntuak

gara zuten zain geratuko, zuek guretzat onenaz den noiz erabakiko zain. Jakin ezazue eskualde honek ez duela beldurrik, eta aspaldi dabilela uhalik gabe mugitzen. Uhalik gabe, baina taldean. Izan ere, instituzioen arabera gauza askok banatzen gaituzten arren, askoz gauza gehiago dira lotzen gaituztenak".

Gauza bat eskatu zieten bertaratuakoei: orain arte Aiaraldean nagusitu den elkartasun eta batasunean sakontzea, uste baitute antolakuntza dela bidea egindako proposamenak "konpromiso erreal" bilakatzeko. "Uste dute kaleratu ahal gaituztela? Valvospainen egin zuten bezala? Gure isiltasuna erosi nahi dute? Tubacexen saiatu ziren bezala? Abandonatu nahi gaituzte Lipmesa, Gama edo Somolsan



## erreportajea

egin zuten bezala? Ez digute amesten utzi nahi? Bada lasai: esna gaudu, eta ez diegu lo egiten utziko”.

## “Jarrai dezagun indarrak batzen, gure atzetik datozenek bizi proiektua Aiaraldean garatu dezaten. Ez ahaztu klase gorenakoak garela, langile klasekoak, alegia”

Aurrera begirako pausoak

Maiatzean aurkeztu zen SOS Aiaraldea dinamika, Amurrio

Antzokian egindako ekitaldi anitz eta zabalean Ekainaren 2an, aldiz, mobilizazio eguna egin zuten eskualdean. Milaka lagun batu ziren egun horretako lanuzte eta manifestazioetara, batasun eta indar irudi ikusgarriak utziz.

Ordutik hona beste hainbat ekimenetan ikusi ahal izan da SOS Aiaraldea leloa, Tubacexeko greba mugagabearen edota Laudioko Udal Hiltegia berriz irekitzearen alde eginiko ekimenean, besteak beste. Hala ere, azaroaren 21eko agerraldian nabarmendu zuten “Tubacexekin ez dela ezer amaitzen”, eskualde osoak jarraitzen duelako “alarma gorrian”.

Gauzak hala, borrokan jarraitzeko tresna gisa plazaratu dituzte “emergentziazko puntuak”. Aurrreratu dutenez, datozen asteetan hainbat bilera ireki egingo dituzte, hurrengo pausoak zehazteko. Zita horietara bertaratzeko deia luzatu diete herritar guztiei.

Eskualdeko sektore, eragile eta enpresa batzorde ugariaren artean landu eta adostu dituzte Aiaraldeko emergentzia puntuak hilabete etako lanaren ostean. Datozen hilabetetako borroka eta mobilizazioen aldarrikapen nagusiak izango dira zortzi puntu hauek.

### SOS Aiaraldea dinamikaren emergentziazko puntuak

- 1.- Inbertsioak lehen sektorean eta 0 kilometroko produkzioaren aldeko apustua, sektorearen prekaritatearekin amaitzeko urratsak eginez. Laudioko hiltegia berriz irekitzea ere exijitzen dugu.
- 2.- Beharrezkoa da galdutako enplegua berreskuratzeko eta eskualdea berrindustrializatzeko plan bat garatzea. Era berean, eskualdean bizi diren pertsonen kontratazioa sustatu behar da, batez ere, emakumeena. Ez dugu onartuko inolako enplegu suntsiketarik.
- 3.- Berehalako inbertsio-plana krisiak gogorren jo dituen sektoreentzat (ostalaritza, merkataritza, kultura, etab.).
- 4.- Pentsio publiko eta duinak. Ez dugu inolako murrizketarik edo pribatizaziorik onartuko. 1.080 euroko gutxieneko pensioa exijitzen dugu.
- 5.- Neurri zehatzak eta benetako konpromisoak sektore feminizatuenetako langileen muturreko prekaritatearekin amaitzeko.
- 6.- Zerbitzu publikoetako langile zein erabiltzaileen baldintzak duintzea, azpikontratazioarekin amaituz, eta inbertsio errealak zein neurri zehatzak ezarri hezkuntzan, zaintzan, osasunean eta abar.
- 7.- Aiaralderako gazte enplegu plana garatzea (gaur egun gazteen langabezia % 40 ingurukoa da).
- 8.- Etxebizitza duina izateko eskubide unibertsala bermatzea. Alokairu pribatua arautzea eta alokairu soziala handitzea.



Ekitaldi jendetsua egin zuten Urduñako Somolsa fabrika abandonatuko hondakinetan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

# argazki erreportajea

Aiaraldeko Emakume\* Sortzaileen Azoka antolatu zuen iragan azaroaren 20an Aiaraldea Ekintzen Faktoriako feminismo lantaldeak. Egun osoan zehar, bailarako artisten piezak eta jakintzak ezagutzeko zein erosteko aukera eskaini zuten.

## Faktoria, Aiaraldeko emakume sortzaileen bozgorailu



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Larunbatean-azaroak 20- izan zen Aiaraldeko emakume\* sortzaileen lehenbiziko azoka. Egun osoan zehar egon ziren Faktorian bailarako hainbat tokitatiekorrirako artistakeuren lanak erakusten eta saltzen. Aiaraldea Ekintzen Faktoriako Bor-bor feminismo elkarteak

sustatuko egitasmoaren aurreneko ekimena izanda, baina ez da bakarria izango. Azokan aurreratu zutenek, eskualdeko emakume\* sortzaileen aldizkari edo katalogoa osatzen ari dira, abenduan zehar banatzeko.

12:00etan ireki zituzten ateak, 20:00ak arte. Dinagu Euskal Herriko emakume sortzaileen kolektiboaren aurkezpenarekin hasi zuten maratonia Leire

Aiertzaguenaga Bravo kidearen eskutik, eta segidan elkarrizketatu zituzten azokako artista guztiak. Datozen asteetan sareratuko dituzte ekoizle bakoitzarekin izandako solasaldiak.

Eguerdian bazkaria egin zuten sortzaileak elkar ezagutu eta saretzeko helburuarekin. Ondorengoak izan ziren merkatura batutako artistak.



# argazki erreportajea



# erreportajea



## Aiaraldeko emakumeen\* sorkuntza, bizi-bizi eta balioz bor-bor

Bor-bor Feminismo Faktoriak sustatuta, 14 tokiko ekoizle elkartu zituen azokaren lehenbiziko edizioak. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Aiaraldeko Emakume\* Sortzaileen Azokak eskualdeko sortzaile eta ekoizleak elkartu zituen Faktorian iragan azaroaren 20an, eta agerian utzi du eskualdeko sormenaren kalitatea.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Bor-bor dago sormenaren eltzea Aiaraldean. Azaroaren 20an Faktorian eginiko "Aiaraldeko Emakume\* Sortzaileen Azoka" izan zen horren lekuko. Bor-bor Feminismo Faktoriak sustatuta, 14 tokiko ekoizle elkartu zituen lehenbiziko edizioak; baina bailaran beste hainbeste artista daude. Tokiko emakume sortzaileen lanei ikusgarritasuna emateko eta elkarlan zein elkar ezagutzeko espazio edo foroak sortzeko proposatu zuten azokaren dinamika. "Aiaraldeko emakume\* sortzaileen katalogoa osatu eta zabalduko dugu datozen asteetan", zehaztu dutenez. Emakumeak euskaraz eta feminismotik saretzea dute helburu, eta abiapuntua baino ez zen izan asteburuko merkaturia. Izan ere, urtaroka herriz herri mugituko dute ekimena.

Eskualdean ez ezik, Euskal Herri mailan ere ari dira "eskuz eginaren balioa" bistaratzeko proiektuak agertzen. Horren adibide da Dinagu kolektiboa.

Leire Aiertzagunenaga kidearen arabera, "Emakume sortzaileak ahalduntzea, ikusgarritasuna ematea eta ahizpatasunetik saretzea da Dinaguren helburua, euskaratik eta feminismotik sare berdinean osatzea ibilbidea". Aiaraldean ere antolatu nahi dute 'Dinagu. Nomadak gaittun' ekimena 2022an, gainera.

### Balioz josita

Aiaraldeko emakume\* sortzaileen lanetan, euren kreatibitateaz gain, baloreak eta balioak dira nagusi. Izan ere, artista askok jasangarritasunari edota birziklapenari ematen diote garrantzia, euren lehengai edo produktuak aukeratzean. Horietakobatda Celia Cuadra. 'Olaja' markapean zabortzat hartzen diren materialekin eraikitzen ditu eguzki-loreak, lanparak... arraultza-ontziekinkasu. Maialen Gineak, berriz, Biko izenarekin arropa "jasangarriak" ekoizten ditu: "Kotoi organikoa erabiltzen dut beti, arropa nik margotua edo Euskal Herrian serigrafiatua da, jantzi hornitzaileetan langileen baldintzak ere hartzen ditut

kontuan". Oihane Barrosok, aldiz, plastikoa gehiegi kontsumitzeko joerari aurre egiteko erabaki zuen Iruma proiektua sortzea: "Adur zapiak, zorroak... Umeak izan nituenean ohartu nintzen zer nolako kontsumo ohitura dugun".

Sorpresa egitasmoak, berriz, euskara erdigunean jartzeko apustua egin zuen. Iraia Aspuru Respaldizak eta Laura Saratxaga Zaretek munduratu zuten marka, eta euskarazko mezudun opariak dituzte ardatz: "Inguruan haurrak jaiotzen hasi ziren, eta ez genuen euskaraz oparitzeko ezer topatzen. Lagunei oparitzeko ekin genion gauzak sortzeari. Interneten zintzilikatu genituen lanak, eta ekainarekin batera irakasleak eskertzeko opari eskaerak hazi ziren". Gaur egun, euskarri eta produktu andanadute esku artean, euskal hizkuntza bultzatzeko asmoz: "Oparietan euskarari ez zaio ematen duen garrantzia, orain dena dago ingelesez, eta ahaztu egiten zaigu guk hemen hizkuntza bat dugula, eta oso polita gainera".

Ez da kasualitatea joskintza proiektuak dituzten aiaralदारrek

**Kontsumo arduratsua sustatzeko eta gehiegizko plastiko kontsumoa ekiditeko eskaintza zabala dago Aiaraldean, emakumeen lan eta jakintzaren transmisioari esker**

etxetik jaso izana zaletasun edo jakintza. Hiru egitasmoak, esaterako, Aintzane eta Marian Rojo ahizpak eta euren Iruene Chavarri ama saretu ditu; eta oihalekin egiten dute lan buru zapiak, poltsak zein mototsekoak ekoizten. Leike ere, ama eta amonarengandik jasotako ezagutza eskertzeko modua da, Garazi Dorronsoro Garateren esanetan: "Leike hitza erabiltzen zuten bakoitzak bere euskalkian amak eta amonak. Nik argi neukan emakumeen proiektua izatea nahi nuela eta emakumeak saretzeko erabil zitekeela marka hau". Pandemiak sorkuntza areagotu du, haren hitzetan: "Geroz eta jende gehiago ari gara gauzak sortzen, pandemiak eta etxean egon beharrak izugarritzko gorakada eragin du". Presioa ere sentitu dutela aitortzen dute Leikeko kideek, hala ere. Auxi Angulo Alcaideren ustez, "esku-lan eta artisauen mundua geroz eta gehiago zabaltzen ari da, eta eskaintza handia dagoenez zaila da zure burua kokatzea. Guk presioa eta babesa izateko erabaki genuen elkartzea".

# AZAROA FAKTORIAN

www.faktoria.eus  
faktoria@aiaraldea.eus  
688 647 942

MUSIKA ANTZERKIA ELIKADURA HAURRAK FEMINISMOA EKONOMIA

## IKUSKIZUNAK

Azaroak 27, zapatua 20:30ean  
**KANTU-AFARIA**

Kantuak eta musikak bihotza betetzen digute. Kasu honetan, sabelerako ere gozagarri izango zaigun afariak lagunduta kantiatuko dugu, tokiko produktu ekologikoekin kozinatutako janariarekin.  
BAZKIDEAK: 12 € / EZ-BAZKIDEAK 15 €



## BERBALDIAK



Abenduak 1, eguena 19:00etan

**GOIENER;** ENERGIA  
BERRIZTAGARRIENEN SORKUNTZA  
ETA KONTSUMO KOOPERATIBA

Zer da Goiener? Zergatik kontratatu argindarra irabazi asmorik gabeko erabiltzaileen kooperatiba honekin? Zer dira energia komunitateak? Energia sorkuntza proiektuak Euskal Herrian, eta Aiaraldean zer?

## KOKORIKO JARDUERAK



Azaroa eta abenduak martitzen  
eta eguenetan 10:00etatik 12:00etara

**HAUR ETA  
FAMILIA GUNEA**

Familientzako bereziki prestatutako gunea, estalpean eta gozotasunean jolasteko eta lasai egoteko. Haurrak jolasten dauden bitartean goxo egoteko, lan egiteko, irakurtzeko, sortzeko, familiar jolasteko, ... espazioa. Jolaserako proposamen eta material ezberdinak eskainiko dira haurren behar eta adinera egokituak.  
BAZKIDEAK: 3 € / EZ-BAZKIDEAK 5 €



Azaroak 26, barikua 18:00etan

**NERABEENTZAKO  
ARGAZKILARITZA  
DIGITALA**

Multimedia tailer praktikoa. Jolas eta dinamika ezberdinekin teknika eta baliabide ezberdinak ezagutuko ditugu. \*Aiaraldea Hedabideko profesionalak bideratutako tailerra.  
DOAN



Azaroak 28, domeka 10:30ean

**NEGUKO TRUKE AZOKA**

Etxean ditugun eta erabiltzen ez ditugun jostailuak trukatzeko espazioa. Trukearen bidez bi helburu lortu nahi ditugu: jostailuei bigarren bizitza ematea eta kontsumo ohiturak aldatzea. Jostailuak biltzeko gunea ezberdinak jarriko ditugu eskualdeko herrietan, truke txartelak banatuko ditugu eta azoka egunean beste jostailu batzuk jasotzeko aukera egongo da. Hori eta askoz gehiago.... familia giro ederra!  
DOAKO SARRERA

## EKONOMATUKO JARDUERAK



Azaroak 26, barikua 19:30ean

**BOGA GARAGARDOEN  
DASTAKETA BERTSOTAN**

Boga garagardoak dastatzeko aukera paregabea, Faktoriako Bertso eskolako kideek bertsoan kontatuko dituzte garagardo bakoitzaren istorio eta berezitasunak. Doinu ederrak, errimak, edatekoa eta jatekoa ostiral arratsalde iluntzean. 19:30etatik aurrera, Faktoriako plazan.

BAZKIDEAK: 8€ / EZ-BAZKIDEAK 10€



Azaroak 27, zapatua 11:00etan

**OGI ARTISAUA ETA AMA-OREA**

Zer da ama-orea? Eta nola elikatu behar dugu? Zerk egiten du ogi bat osasuntsu? Hartzidura luzeko hainbat ogi artisauen azalpena eta dastaketa egingo da 2 orduko tailer honetan. Era berean, pizza ore biziak landuko dira, bertan formatu eta laboratuz. Tailerreko parte hartzaileek ama-orea jasoko dute opari.

BAZKIDEAK: 5€ / EZ-BAZKIDEAK 6€

### EKONOMATUA

Astelehenetik barikua  
11:30 - 14:00  
17:00 - 20:00  
Zapatuetan  
10:30 - 14:00

722 846 762 ekonomatua@aiaraldea.eus

### EKONOMATUA

Astelehenetik barikua  
11:30 - 14:00  
17:00 - 20:00  
Zapatuetan  
10:30 - 14:00

722 846 762 ekonomatua@aiaraldea.eus



# kultura

**“Liburuan landa eremuko mundua desmitifikatu dut, klase apalen historia jorratu baitut”**

**AKETZA MERINO** (Amurrio, 1987)

HISTORIALARIAK LIBURU BERRIA IDATZI DU. OROZKON ARITUTAKO BIDELAPURREN ERREALITATEA AZALERATU DU, ZABALDUTAKO KONDAIRAK DESMITIFIKATUTA.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

## Nola bururatu zitzaizun liburu hau idaztea?

Pixkanaka-pixkanaka izan zen. Ezagutzen nuen historia, edo hobeto esanda, kondaira, eta egun batean topatu nituen epaitegi txosten batzuk Granizo taldeari buruz. Ikusi nituen eta konturatu nintzen zer bait gehiagorako emango zuela. Ez nuen aurreikusitako, horrela atera zen.

## Nondik heldu diozu gaiari?

Saiatu naiz modu narratiboan egiten. Kontatzen dut Granizo taldeak eta horietako batzuen gurasoek egindakoa, bidelapurak izan baitziren. Liburua da haien historia modu narratiboan. Ez da eleberria, ezta saiakera historikoa. Historikoki eta geografikoki kokatzen da tokia eta garaia eta hausnarketa batzuk egiten ditut, baina kontakizun baten moduan.

Askotan esaten dut historia unibertsal dela, baina Aiaraldean gertatu zen, Orozkon, batez ere. Pobrezia, klase apalen zailtasunak unibertsalak dira, baina Aiaraldean jazo zen. Historia desmitifikatzailea da. Oro har, landa eremuko historia oso mitifikatua dago, baserria eta abar. Liburu honetan, ordea, aipatzen da pobrezia. Ez zen oso modu erakargarria edo atsegina. Bazeuden baserrietako jaunak edo jauntxoak, baina hauek jornalariak ziren eta euren bizitzak nahiko zailak ziren. Ikazkinak, jornalariak, arotzak... Landa eremuko alde ezkatututa eta klase apalen historia.

## Granizo taldearen kondaira eta epaiketak alderatu dituzu, zein da fidagarriagoa?

Epaiketa da fidagarriena, baina kondairan daude benetako historiaren arrastoak. Badago egia dena, puztu diren zenbait gertakari, eta gezurra dena. Nik kondaira ezagutu nuen Julian Olabarriaren bidez, murgiar horrek idatzi zuen liburua eta jasotako zenbait kontu ez ziren Granizokoak.

Alde batetik, beste batzuek egindakoa leporatu zieten eta bestetik, belaunaldiz belaundi ekintzak puztu ziren.

## Bidelapurrek kondaira handia daukate, baina zuk zer topatu duzu?

Oro har ez zen ogibidea, osagaia baizik. Jende apala zen eta noizean behin bidelapurretara jotzen zuten. Hauen kasuan, behintzat. Egon ziren bidelapur profesionalak, baina ez Granizorena. Eurentzat zen noizean behineko jarduera, diru beharrik. Ez ziren lapurrak eta ez zeuden legez kanpo, baina egin behar zituzten harrapatu arte.

## Zer nolako lapurretak egin zituzten?

Lapurretak bi motatakoak ziren. Batez ere, bideetan saltzaileei gauzak edo dirua kendu. Horrez gain, etxeak lapurtu. Ez zen ohikoa, baina Granizo taldekoek hori egin zuten, objektuen edo diruaren bila. Objektuak saltzen zituzten dirua eskuratzeko.

## Gorbeiak fenomeno izan zen?

Ez, Euskal Herri osokoa. Kasu honetan liburua Altuben dago kokatua, Gorbeian baino. Nahiko jarduera ohikoa izan zen Altuben eta horrelako mendi bideetan. Ez zegoen populazio askorik eta bi eskumen ezberdin zeuden, Araba eta Bizkaia artean, edo Zuia eta Aiara artean, justiziatik ihes egiteko. San Adrianen, Urkiolan, Arlaban eta horrelako tokietan oso arrunta izan zen, baina baita Bilboko inguruetan ere. Oso hedatua zegoen.

## Zergatik iraun du Granizo taldearen kondairak?

Galdera ona. Nik ezagutu nuen aipatutako liburuagatik, eta gero beste kontu batzuk entzun ditut. Edonola ere, litekeena da euren oroimenak irautea azkenengoak izan zirelako. Gero egon ziren lapurrak eta krimenak, baina bestelako ezaugarriekin. Modernoagoak edo ez zuten talde izaerarik. Bidelapurren garaia igarota zegoen Granizo taldea existitzen zenean eta lapurreta bakarra egin zuten.

## Zein da zure asmoa orain liburuarekin?

Lehen aurkezpen ofiziala egin genuen eta telematikoa izan zen, komunikabideentzat. Momentuz ez daukat ezer finkatuta hitzaldi edo aurkezpen moduan, baina zerbaite egingo dut; hori bai, apurka apurka, ez dago presarik. Denboran luzatu daiteke, ez da egungo gaia. Noizbait ibilaldia egin dezakegu, esaterako.

## Ba al duzu beste proiekturen bat eskuartean?

Badaukat zerbaite idatzita Aiarako historiari buruz eta nire tesia argitaratu gabe dago. Irtenbidea eman nahi diet bie. Dena den, bat-batean agertzen dira horrelako ideiak. Nire tesia Goi-Nerbioiko industrializazio prozesuari buruzkoa, baina ikuspegi sozialetik, ekonomikotik baino. Aldaketa sozialak landu ditut. Uste dut interesgarria dela, eskualdean kokatutako historia garaikideko testu bakarra da horri buruz. Aiarako testuak dira udalerraren historia, hasieratik 1800. urtera arte.

## Garrastatxu: Baranbioko euskaldunen topaleku



Belen Ortueta, Montse Arteta, Pili Arteta, Lorena Zapatero, Alberto Alday eta Karmele Isasi. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Baranbioko Euskal Jaia ospatu zuten azaroaren 13an. Urtebeteko etenaldiaren ostean, bertso bazkariak, dantza-plazak eta euskarak hartu zuten Garrastatxu.

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Pandemiak ezinezkoa egin zuen iazko edizioa ospatzea, baina bueltan dago dagoeneko Baranbioko Euskal Jaia. Iragan larunbatean -azaroak 13- dozenaka euskaldun elkartu ziren baseliza inguruetan, honezkero 24 urte bete dituen jai egunaz gozatzerako.

Sustrai Colina eta Andoni Egaña bertsolariak girotu zuten herriko euskaldunen bazkaria,

eta Patxi Perezen taldeak musika eta erritmoa jarri zizkion dantza-plazari. Jai eta dantza gosea agerikoa zen, eta eguneko egitarauak bertaratu ziren asetu zituen.

Aiaraldea Komunikabideak BelenOrtueta, MontseArteta, Pili Arteta, Lorena Zapatero, Alberto Alday eta Karmele Isasi elkartu zituen Garrastatxuko txokoko sutondoan. Eurak dira, beste askoren artean, Baranbioko Euskal Jaiaren sustatzaile eta antolatzaileak. Azaldu

zutenaren arabera, ekimenak babeslekua eskaini diot urteluz euskarari Baranbion, eta herriko euskaldun zaharrentzako aterpea ere izan da. Sinbolo bilakatu da Garrastatxuko toxkoa Baranbioko euskal komunitatearentzat

Orain, ilusioz begiratzen diote datorren urteko ospakizunari, Euskal Jaiak 25 urte beteko ditu eta. Une hobezina antolakuntzaren lekukoa Baranbioko belaunaldi gazteei pasatzeko.

## ‘Su’ abestia kaleratu du Malen Atxak

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Malen Atxa abeslari laudioarrak abesti berria plazaratu du. Egoitz Uriarte musikariarekin batera ekoitzi du musika, eta artistak berak jarri dizkio hitzak kantuari. Diseinua, aldiz, Ane Kareagak egin du.

Aurten abiatu du musikari laudioarrak bere ibilbidea. Bertsioak jotzen hasi zen,

baina laster plazaratu zuen bere lehengo kanta izango zena, bideoklip eta guzti.

Udaberrian eskaini zuen lehen kontzertua, Faktorian hain zuzen. Geroztik, dozenaka izan dira eskainitako emanaldiak. Abuztuan, esaterako, Laudioko Herriko Plaza goraino bete zuen artista gazteak hainbat musikariarekin batera eskainitako kontzertuan.

## 21 emanaldi bilduko ditu Musika poteoak Urduñan



Txalainak taldeak jo du aurtengo edizioan. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Izar mendiguren Cosgaya**

Hamargarrenez antolatu du Liborio Kolektiboak Urduñako Musika Poteoa. Ohi gisa, bi asteburutan banatu dituzte emanaldi guztiak. Aurtengoan, guztira, 21 kontzertu eskainiko dituzte hiriko hainbat tabernatan. Ohiturari jarraiki, eguerdi eta iluntze bitartean kokatu dituzte ikuskizun guztiak.

Azaroaren 19an hasi zuten

musika maratonia, eta 18 kontzertu pilatu zituzten lehenbiziko asteburu hartan. Tartean ugariak izan ziren Urduñako eta Aiaraldeko musikariak: Voltium, Izate Faltsua, Kaserna, Sobrino Sobrado, 4 Bancos edota Peri Fly. Oraindik ere badago egitasmoaz gozatzekeo tarte: hiru saio egongo dira asteburuan. Horien artean Eriz Perezek, esaterako, Lainopilak diskoa aurkeztuko du hilaren 26an.

**YANDIOLA**  
HORTZ KLINIKA LAUDIO

75 urte zurekin

Mediku zentroa RPS: 314/18  
Karmen Kalea 13, behea  
LAUDIO (Araba)  
946 72 31 00



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIKAK



OFICINA CENTRAL:  
Pillapein Zubiaren 10, 01470 Amorebieta-Elizate  
[www.cuadribus.com](http://www.cuadribus.com)

T. 945 890 804  
[info@cuadribus.com](mailto:info@cuadribus.com)



**CuadraBus**

# kirola

TXIRRINDULARITZA

## Orozko Kriteriuma txirrindularitza jaia bilakatu da Igor Astarloa, Joseba Beloki edota Iñaki Isasiren partaidetzarekin



Isabel Martin gailendu zen emakumezkoen lasterketan eta Jon Aberasturi gizonezkoen artean. Aiaraldea.eus

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Iragan igande eguerdian kirol hitzordu berezia egon zen Orozko Kriteriumean. Bi proba egin zituzten, ezbedinak biak. 12:30ean abiatu zen lehenengoa eta emakumezkoak izan zituen protagonista. Kirolari gazteak gogor lehiatu dira eta esprintean erabaki behar izan zuten bigarren postua. Emakumezkoek 10 itzuli egin zituzten herrigunean barrena eta ziztu bizian amaitu zen norgehiagoka. Isabel Martin izan zen irabazlea eta Irantzu Solaguren sartu zen atzetik,

Laura Tenorio azken metroetan gaudituta.

13:30ak aldera, ordea, gizonezkoen lasterketa izan zen. Kern Pharmako gazteekin eliteko txirrindulari erretiratu mordoa elkartu zen irteeran. Horien artean egon ziren Iker Flores, Amets Txurruka, Mikel Pradera, Iñaki Isasi, Joseba Beloki, Patxi Vila, Jon Aberasturi, Mikel Zarrabeitia, Iban Mayo, Asier Maeztu, David Lopez edota Igor Astarloa.

Euren arteko giroa, dena den, oso bestelakoa izan zen eta lagun zaharren topaketatzat jo zuten aukera. Aurkezpen umoretsuak egin zituzten

eta Joseba Belokik, esaterako, txantxetan aipatu zuen agian herrian zehar eman beharreko itzuliren batean ezkutatu zela, azkenengo biretara batzeko.

Atmosfera lasai hori, aldiz, berehala amaitu zen eta 25 itzuliak ahalik eta lasterren betetzeari ekin zioten kirolariek. Jon Aberasturi izan zen garaile, Igor Astarloa bigarren eta Urko Bedarrek hartu zuen podiumaren azken toki.

Kriteriumaren bigarren edizioak herritarren interesa piztuzuen eta streaming bitartez emititu zuten zuzenean.

TRAILA

## Lasterketa herrikoia egongo da Amurrioko Krosaren III. edizioan

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Bi urteko etenaldiaren ostean, abenduaren 12an ospatuko dute Amurrioko Krosaren III. edizioa. Hasierabatean kontrakoa zirudien arren, lasterketa herrikoia egongo da Refor kirolgunean ospatuko den kirol zitaren barruan. Aurtengo edizioak Euskadiko Txapelketa hartuko du. Hori dela eta, proposatutako ordutegiaren bateraezina zen proba herrikoia.

Baina, Euskadiko Federazioak hainbat aldaketa egin ditu eguneko ordutegian, eta Oinkariak Atletismo Taldeko kideek iragarri dute azkenean aukera egongo dela ohiko lasterketa herrikoia ere egiteko. Taldeko kideek pozez jaso dute albistea.

Zita 9:45ean izango da, master federatuekin batera. Lasterketa mistoa izango da, eta kirolariek 5.200 metroko zirkuitua osatu beharko dute. Inskripzioak 3 euroko kostua izango du, eta egunean bertan egin beharko dute atletek ordainketa, dortsala jasotzearekin batera.

Oinkariak Atletismo Taldeko kideek ilusioz hartu dute krosaren edizio berri hau antolatzeke lana: "Pandemiagatik, ia 2 urte pasa dira azken krosa ospatu zenetik eta gogo handiekin gaude". Azaldu dutenaren arabera, hainbat moldaketa egin dituzte zirkuituan, "gogortasuna" handitzeko, eta maila altuko lasterketa izango dela aurreratu dute.

ESKALADA

## Bakarkako estiloan eskalatu du 'Babel' bidea Tasio Martinek

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Marokoko Atlas Garaian erdietsi du bere azken erronka Tasio Martin urduñarrak. Taghia herrixka inguruko eskalada eremuko 'Babel' bidea eskalatu du 21 urteko gazteak, bakarrik.

Tagoujimt n'Tsouiant horman dago 'Babel'. 18 luzek osatzen dute bidea, horietako 14 zazpigarren gradutik gorakoak. 800 metro

guztira, eta halabeharrez 7a+ igo behar da. 2007an ireki zuten bidea eta hamar aldiz bakarrik igo dute geroztik, baina Martin izan da bakarkako estiloan eskalatzen lehenengoa.

Kataluniako Mendizale Federazioaren Alpinismoko Teknikazio Taldeko kideekin egindako bidaia probestu du Martinek abentura gauzatzeko. Hiru egun behar izan ditu urduñarrak eskalada osatzeko.

**Zentzuz erosi.**  
Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.  
**Baztertu estereotipoak.**

**Zeu zara zure *influencer* onena.**  
**#KontsumitzenJakin**

**kontsumoBIDE**  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA  
ETIKONTSUMO BIDEA DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

kontsumoBIDE  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO





# herriko plaza



## Nerea

Zorionak Nere, pertsona zoragarria, alaia eta jatorra zara. Aurrera segi!!! Gure maitasunarekin musu asko!!!

Periko eta Paz



## Irati

Zorionak guapísima!! Abiada bizian zoaz zu, eta baita urteak ere. Segi horrela gure bizitzak argitzen. Gero eta gehiago maite zaitugu!!!

Periko eta Paz



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Abenduaren 15ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

## Denborapasak

### ERRAZA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   |   | 8 | 2 | 7 | 1 | 5 |
| 4 | 1 | 2 | 6 | 5 |   |   |   |   |
|   | 5 | 7 |   |   |   | 2 | 4 | 6 |
| 5 | 2 |   | 8 | 1 |   | 4 | 9 | 7 |
| 7 | 8 | 9 | 2 |   |   | 3 | 6 |   |
| 3 |   | 1 | 9 |   | 6 |   |   | 2 |
|   | 7 |   |   | 9 |   |   |   |   |
|   | 3 | 4 | 7 | 6 |   | 1 | 5 | 9 |
|   | 9 |   |   |   |   | 8 |   | 4 |

### ZAILA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   | 8 |   | 6 |   |   |   |   |
|   |   |   |   |   | 9 |   |   |   |
| 3 | 6 |   |   | 1 | 2 |   |   |   |
|   |   | 7 |   |   |   |   | 5 | 1 |
|   | 3 | 5 |   |   |   |   |   | 9 |
| 1 |   |   |   | 8 |   |   |   | 2 |
|   |   |   |   |   | 3 | 4 |   |   |
| 9 | 5 |   | 6 |   | 1 |   |   | 3 |
|   |   |   |   |   |   |   | 9 |   |

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



**Pirritx, Porrotx  
eta Marimotots  
Amurrion  
ikusteko  
sarrera**

Bañueta kiroldegiko ikuskizuneko sarrera baten zozketa. Parte hartzeko sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** azaroak 26, 12:00etan.



## etxaurre

higiezin agentzia

20 urte zurekin

- Pisuak
- Txaletak
- Lokalak
- Lursailak
- Balioespenak

94 672 85 50

BEZEROARENTZAKO ARRETA

Zumalakarregi 38  
01400 Laudio

## IRAKURKETA GUNEA

### ARTURO ETA KLEMENTINA

**Idazlea:** Adela Turin eta Nella Bosnia

**Argitaletxea:** Kalandraka

Haurrekin genero indarkeria eta harreman afektiboak lantzeko ipuin interesgarria da. Dordoka bikote baten harremana erakusten digu zeinetan botere harremanak esistitzen diren eta egoera horretatik klementina zelan ateratzen den adierazten digu.



### NIK SINISTEN DIZUT

**Idazlea:** Samara Velte Moran

**Argitaletxea:** Txalaparta

2016an San Ferminetan gertatutako talde bortxaketa kontatu egiten du puntu kritiko batetatik. Bere dimentsio guztiak hartzen ditu, ekintza bera eta honek hartu zuen maila mediatikoa, zein epaiketa. Puntu guztietan indarkeria matxista zelan azaleratzen den adierazten digu saiakera liburu interesgarri honetan.



## JOLAS GUNEA

### JOSTAILU EZ SEXISTAK

Negua iragarri, Olentzero eta Mari Domingi etorri egiten dira. Gabonekin batera opariak ere iritsi egiten dira etxe askotara.

Zer erosi edo ezkutitzean zer jarri, etxe askotan egiten den galdera bat da.

Dendetara goazenean ere nahiko argia da korridore larrosa edo urdina. Eraikuntza, kirola, jolas biolentoak korridore urdinean eta panpinak, zaintzarako jostailuak korridore lerrosean.



#### ZER DIRA JOSTAILU EZ SEXISTAK?

Definizio bat egin behar bada, genero rol estereotipatuak berproduzitzen dituzten jostailuak direla esango genuke.

#### Zehatzago jostailu sexistak dira:

- Mutil edo neska zelan izan behar duten esaten duten jostailuak
- Gaur egungo generoen arteko bereizketan sakontzen dutenak
- Harremanak sexuaren arabera markatzen dutenak
- Jostailu belikoak, biolentzia berproduzitzen dutenak

#### Eta jostailu ez sexistak orduan?

- Pertsonen gaitasun guztiak aintzat hartzen dituztenak, sexua edo generoa begiratu gabe
- Hainbat modutara jolasteko aukera ematen dutenak. Anitzak direnak erabileretan.
- Parekidetasuna bultzatzen dituzten jostailuak
- Generoarekiko bestelako baloreak sustatzen dituzten jostailuak.

Jostailuak aukeratzekoan, kontuan hartu haurraren adina eta gaitasunak. Jostailu eta aukera ezberdinak eskaini haurrari, egiturarik gabeko jostailuak, material ezberdinetakoak... Eta aldizkarian edo telebistan agertzen bada, iragarkia zelakoa den analisatu, horrek pistak emango dituelako jostailua sexista den edo ez jakiteko.

#### Eta jostailua erosi haurretik gure buruei galdetu:

Ea egokia den haurraren gaitasunetarako, ea luzaroan erabiltzeko aukera ematen duen, ea norberak erabiltzeko edo beste batzuekin jolasteko aukera ematen duen, ea lagunduko dion haurrari genero-estereotipoak ez berproduzitzen, ea kultur aniztasuna eskaintzen dion, ea naturarekiko errespetuzkoa den, ea arriskurik suposatzen duen...



**KOKORIKO**

HEZKUNTZA FAKTORIA


### Euskararen Eguna

Urte asko dituen hizkuntza da gurea, kolpatua, iraindua eta txikitua izan da. Ezjakintasunak sortzen duen ezinegon eta beldurrak eraginda gure herri txikiaren hizkuntza beti egon da jo-puntu.

Gaur egun, egoera egoki batean dagoela uste dute askok eta beraz ezer gutxi gehiago egin behar dela, haurrek eskolan jasotzen dute hizkuntza eta jakintza asko handitu da azkeneko hamarkadan. Haur eta gazteek ordea ez dute ahoan erabiltzen, askok gorrotoa ere adierazten diote, zenbatetan entzun den, euskarazko musika ez zait gustatzen, esaldi gogorra da, baina zer da ez dena gustatzen? Zergatik gazteek kontrako jarrera bat adierazten diote hizkuntzari? Topaguneak habiatutako kanpainari jarraiki "haurren aurrean helduak heldu" izan behar gara, hau da, helduak erreferentziatzeko pertsonak izan behar gara haurren aurrean, euskaraz egitea nahi badugu. Helduok egitetik kutsatzen ditugu haurrak. Helduok gure bizitzeko hizkuntza moduan hartzen badugu badugu haurrek egingo dute.

Bestetik, eta gorrotoaren abiapuntu izan daitekeelakoan, euskara eta eskolak duten erroko harremanaz hausnartu behar da. Haur eta gazteek euskara, eskolarekin harremanetan dute eta gaur egun eskolak eta aisialdiak duten dikotomia ere euskarara ekartzen da. Eskoletatik euskararen erabilera indartzeko erabiltzen diren metodoek hausnarketa bat behar dute.

Haur eta gazteek Euskara ahoan izateko gure buruak astindu beharko ditugu eta helduok (eskolak) gure ziborrari gehiago begiratu beharko diegu!



# Hamarrekoa

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



# Ui! Txoria!

Seiko sudoku hau TXORIA hitza osatzen duten hizkiez egina da. Hutsuneak bete behar dituzu, eta horretarako, kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

# DOMINOAN

Ba al dakizu zer jaten duen aldameneko txoriak? Bada, euliak, eltxoak, ehunzangoak, zizareak, kakalardoak eta sitsak, eta sei elementu horiekin domino segida hau osatu beharko duzu.

|   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|
|   | X |   | T |   | O |
|   | T |   |   |   | A |
|   |   | T |   | A | R |
| X |   |   |   |   |   |
|   |   | I |   |   | X |
|   | R |   | I | O |   |



# Itzala

Horra non pausatu den txoritxo! Aurki ezazu irudi honen itzal zuzena.

# SOLUZIOAK



# Kontra

## Mundutik Aiaraldera



Diego Delso

### DAMARIS ALONSO


JAIOTERRIA  
LUCENI, ARAGOI (1985)

BIZILEKUA  
ARTZINIEGA

BIDAIAREN ZERGATIA  
BERE SENARRA ESKUALDERA BIZITZERA  
ETORRI ZEN.



### ARAGOI



#### DESKRIBAPENA

Ebro ibaiaren bailararen erdialdean dago kokatuta. Hiru probintzia ditu: Zaragoza, Huesca eta Teruel. Klima mediterraneo-kontinental da nagusi zonaldean

#### AZALERA

47.719 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

1,3 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZA

Aragoiera lurraldeko zenbait eremutan baino ez du estatus ofizialik. 12.000 hiztun inguru ditu hizkuntzak, eta Huesca iparraldean pilatzen dira gehienak.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publicitate@komunika.eus  
Tifnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioa, Laudio. Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki Iarrakoetxea, Elixarritz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez.

## “Argi nuen hemen biziko banintzen euskara ikasi beharko nuela”

#### Zaragozako zara, ezta?

Berez ez naiz Zaragozako, Lucenikoa baizik, Zaragoza eta Tuteran artean dagoen herri oso txiki batekoa. Euskal Herriko mugatik hurbil bizi naiz.

#### Nola amaitu zenuen Artziniegan?

Nire senarra Artziniegan bizi da, horregatik etorri nintzen hona bizitzera.

#### Non ezagutu zenuten elkar?

Lucenin. Bera nire herri berekoa da, eta betidanik ezagutzen duguelkar, txikitatik, eta azkenean elkarrekin amaitu dugu. Bera zortzi urte zituela joan zen Getxora bizitzera, gurasoekin. Baina gero etxea erosi zuten Artziniegan. Distantziak harremana izan genuen hasieran.

#### Zer moduz Artziniegako bizimodua?

Herria Luceniren antzekoa da, baina Euskal Herria berez oso ezberdina da: ingurumea, mendiak, janaria... asko gustatzen zaizkit, 2012tik nago hemen.

#### Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Orain dela hiru urte hasi nintzen, Bilboko Gabriel Aresti euskaltegia, zerotik. Aditzaketa zenbakiak ikasten hasi nintzen.

#### Nolakoa izan da ikasketa prozesua?

Oso gogorra iruditu zitzaidan hasieran. Baina, denborak aurrera ahal hizkuntzaren logika hartzen hasi nintzen. Orain kostatzen zait hitz egitea, zaila da, baina ez horrenbeste

(barreak). Zortzi hilabetez egon nintzen ikasten, trinkoan. Gero utzi egin nuen, eta orain berriro hasi naiz.

#### Bederatzi hilabete daramatzazu guztira euskara ikasten, baina ondo moldatzen zara dagoeneko.

Beno... (barreak). Nik B1 lortu nuen 2018an, baina gero ahazten joan zait hizkuntza. Hiztegia suertatu zait zailena. Gauza asko nire buruan pentsatzen ditut, baina gero ez dut horiek esateko hiztegiarik. Lehen mailan denak ginen kanpokoak: Indiakoak, Errioxakoak... Orain, aldiz, klaseko ia gehienek hitz egiten dute euskarza ni baino gehiago, eta hori hobea da niretzat, belarria egiteko balio didalako. Izan ere, nik nire egunerokan

ezin dut euskaraz hitz egin, nire inguruko jendeak gaztelera hitz egiten duelako. Euskaltegian soilik hitz egiten dut, nire etxean nik bakarrik hitz egiten dut.

#### Eta zergatik ekin zenion euskara ikasteari?

Bi gauzategatik: lanagatik eta kultura ezagutzeagatik. Gauza asko galdu ditut hizkuntza ez jakiteagatik. Euskaltegian ezagutzen ez nituen gauzak erakusten zizkidaten: jaiak, abestiak... Argi nuen hemen biziko banintzen euskara ikasi beharko nuela, eta horretan nago.

Nire aurtengo helburua B1a erreparatzea da, hurrengo urtean B2a gainditu ahal izateko, baina ez dakit egin ahalko dudana.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

